

6.HARREMANAK

Bezeroekin harreman gertukoa eta fidagarria eraiki nahi dugu. Sare sozialetan aktibo egongo gara, haien iritzia eta iradokizunak jasotzeko, eta webgunean galderak egiteko zein eskaerak kudeatzeko aukera eskainiko dugu.

Produktua erosten dutenean, birziklapen-proiektuaren parte direla sentiaraziko diegu, komunitateari egiten dioten ekarpena nabarmenduz.

Gainera, bezero leialentzat deskontu txikiak, opari ekologikoak eta produktu berrien probak eskainiko ditugu. Adibidez, birziklatutako paperez egindako koadernoak, postalak edo artelan txikiak eskaintzea pentsa dezakegu, edo zigarro-muturrak erabiliz sortutako paperezko produktuak berrerabilgarriak aurkeztea. Horrela, produktu berriak probatzeko eta gure birziklatutako papera berriro erosteko motibazioa handituko dugu.



